



2025WTGB0001
**GIZARTE IZAERAKO DIRULAGUNTZAK
ESKURATZEKO IRIZPIDEAK. 2025. URTEA**
2025WTGB0001
**CRITERIOS PARA LA CONCESIÓN DE LAS AYUDAS
ECONÓMICAS DE CARÁCTER SOCIAL. AÑO 2025**

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia
GIZARTE EKINTZA
Tel. 943 004320
gizartekintza@pasaia.net

UDALEN PRESTAZIO EKONOMIKOAK GIZARTE-EKINTZAREN EREMUAN

TESTUINGURUAN KOKATZEA

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 22ko 14/2022 Legeak bazterkeria-arriskua prebenitzeko jarduketak ez ezik, norberaren bazterkeria nahiz gizarte eta lan arloetako bazterkeria arintzeko jarduketak arautzen ditu. Aldi berean, erraztasunak ematen ditu beren gizarte-eskubideez baliatzeko behar adina baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dituzten herritarrak gizartera daitezen.

Ekintza publikoa herritarren benetako premietara egokitzeko, lege honek Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema indarrean jartzen du, eta bi tresna esleitzen dizkio: prestazio ekonomikoak eta gizarteratzera eta laneratzera bideratutako tresnak. Prestazio ekonomikoen artean, eskubide subjektiboko prestazio ekonomikoak eta dirulaguntzen izaera duten prestazio ekonomikoak (Gizarte Larrialdietarako Laguntzak) bereizten dira.

Aldi berean, abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak xedatzen duenaren arabera, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemak beste sistema eta politika publiko batzuekin elkarlanean, herritar guztien ongizatea bultzatu behar du. Besteak beste, larrialdietarako egoerek eragiten dituzten behar pertsonal eta familiarak prebenitzea eta artatzea da oinarrizko helburua. Hori horrela, lege horretan jasotakoa betez, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemaren berezko prestazio ekonomikoak dira larrialdi egoeretatik edo gizarte alorreko larrialdietatik edo babesgabezia egoeretatik eratortzen diren ondorio ekonomikoak babestekoak edo arintzekoak.

Horren haritik, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak aldian aldikoak ez diren prestazio ekonomikoak dira, eta gastu zehatzei aurre egiteko adina baliabide ez dituzten lagunei

PRESTACIONES ECONÓMICAS MUNICIPALES EN EL ÁMBITO DE LA ACCIÓN SOCIAL

CONTEXTUALIZACIÓN

La Ley 14/2022, de 22 de diciembre, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, regula los instrumentos orientados a prevenir el riesgo de exclusión, a paliar situaciones de exclusión personal, social y laboral, y a facilitar la inclusión de quienes carezcan de los recursos personales, sociales o económicos suficientes para el ejercicio efectivo de los derechos sociales de ciudadanía.

Al objeto de adaptar la acción pública, en este campo a las necesidades reales de la población, esta ley otorga carta de naturaleza al Sistema Vasco de Garantía de Ingresos e Inclusión Social y le atribuye dos herramientas: las prestaciones económicas y los instrumentos orientados a la inclusión social y laboral. Entre las prestaciones económicas se diferencian las prestaciones económicas de derecho subjetivo y las prestaciones económicas de naturaleza subvencional (Ayudas de Emergencia Social).

Asimismo, la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, señala que la finalidad del Sistema Vasco de Servicios Sociales es promover, en cooperación y coordinación con otros sistemas y políticas públicas, el bienestar social del conjunto de la población, siendo uno de los objetivos esenciales entre otros, el prevenir y atender las necesidades personales y familiares originadas por las situaciones de emergencia. Por ello, en dicha ley se consideran prestaciones económicas propias del Sistema Vasco de Servicios Sociales las dirigidas a cubrir o paliar las consecuencias económicas de las situaciones de emergencia o urgencia social y desprotección.

En este sentido, las Ayudas de Emergencia Social, entendidas como prestaciones económicas no periódicas, destinadas a personas cuyos recursos resultan

ematen zaizkie. Ohiko edo ez ohiko izaerakoak dira, eta beharrezkotzat jotzen dira gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitze, saiheste eta arintze aldera. Laguntza horiek zuzenbidezko prestazio ekonomiko gisakoak izan beharrea, dirulaguntza izaerakoak direnean Gizarte Zerbitzuen eskumenekoak izaten jarraitzen dute.

Euskal Autonomia Erkidegoan, urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuan jasotzen den bezala, gizarte-larrialdietarako laguntzak jasotzeko baldintza guztiak betetzen ez dituzten pertsona asko kalteberatasun-egoeran, bazterketa-arriskuan eta/edo gizarte-bazterketako egoeran daudela egiaztatu da.

Horregatik, udalek aspaldian erabaki zuten horrelako lagun edo familiei diruz laguntzea, udalek gizarte izaerako diru-laguntza izapidetuta. Helburua bikoitza da:

- 4/2011 Dekretuan araututako gizarte-larrialdietarako laguntzak eskuratzeko baldintza guztiak betetzen ez diren kasuetan, gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko premia ekonomiko urgenteei estaldura ematea..
- Laguntza ekonomikoaren onuradunekin batera, gabezia eta defizitak lantzeko eta pertsonen eta familien gaitasunak indartzeko esku-hartze plan integral bat planifikatzea, haien gizarteratzean eta gizarte-ongizatean autonomia-prozesu handiagoa lortzeko.

Ilido horretan, udaletako gizarte-izaerako laguntza ekonomikoak pertsona eta familia onuradunekin ezarritako esku-hartze planaren barruko beste tresna bat dira.

insuficientes para hacer frente a gastos específicos, de carácter ordinario o extraordinario, se constituyen como ayudas necesarias para prevenir, evitar o paliar situaciones de exclusión social. Estas ayudas, que no se constituyen como prestaciones económicas de derecho, sino como ayudas económicas de carácter subvencional, siguen siendo competencia de los Servicios Sociales.

En la Comunidad Autónoma del País Vasco, se ha constatado que existe un número importante de personas, que aún no cumpliendo todos los requisitos de acceso a las Ayudas de Emergencia social, tal como se recoge en el Decreto 4/2011 de 18 de enero, se encuentran en situaciones de vulnerabilidad, riesgo de exclusion y/o exclusión social.

De esta manera, los ayuntamientos han optado desde hace años por apoyar económicamente a estas personas o familias, a través de ayudas económicas de carácter social de ámbito municipal, con el doble objetivo de:

- Dar cobertura a necesidades económicas de carácter urgente que permitan prevenir, evitar o paliar situaciones de exclusión social, en aquellos casos en los que no se cumplan todos los requisitos de acceso a las Ayudas de Emergencia Social reguladas en el Decreto 4/2011.
- Planificar junto con estas personas beneficiarias de la ayuda económica un plan de intervención integral dirigido a trabajar las carencias y déficit, y potenciar las capacidades de las personas y familias, al objeto de conseguir un mayor proceso de autonomía en la consecución de su inclusión y bienestar social.

En este sentido, las ayudas económicas de carácter social municipales se constituyen en una herramienta más dentro del plan de intervención establecido con las personas y familias beneficiarias.

Beraz, Pasaia biztanleek gizarte-ekintzaren arloan eskura ditzaketen udal-prestazio ekonomikoak –dagokion balorazio profesionala egin eta larrialdi-egoerei erantzuteko aurrekontu-kreditua dagoela egiaztatu ondoren– honako araudi hauen arabera arautuko dira:

- 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa.
- 16/2017 Dekretua, urtarrilaren 17koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko Dekretua aldatzen duena.
- Pasaia Udalak 2025erako gizarte-izaerako laguntza ekonomikoak emateko ezarri dituen irizpideak.

PASAIKO UDALAREN GIZARTE IZAERAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK EMATEKO IRIZPIDEAK. 2025. URTEA

Irizpide hauen helburua da Pasaia Udalaren 2025erako laguntza ekonomikoak nola eman arautzea.

I. XEDEA

2025. urtean, irizpideen arabera onuradunak diren pertsonen eta/edo familien larrialdi ekonomikoko egoerei erantzutea.

Bi eratako laguntzak izan daitezke: itzuli beharrik gabeko laguntzak, edo onuradunak jasotako zenbatekoak itzultzeko konpromisoa hartuta egindako maileguak.

Laguntza ekonomiko horiek subsidiarioak dira, eta, hala badagokio, osagarriak dira indarreko legerian aurreikusitako eta onuradunari edo bizikidetzaren unitateko edozein kideri legozkiokeen eduki ekonomikoko gizarte-baliabide eta -prestazioekin.

Por tanto, las Prestaciones económicas municipales en el ámbito de la Acción Social a las que podrían tener acceso los vecinos de Pasaia -una vez realizada la valoración profesional correspondiente y comprobada la existencia de crédito presupuestario que permita dar respuesta a las situaciones de urgencia - vendrán reguladas por:

- Decreto 4/2011, de 18 de enero, de las Ayudas de Emergencia Social.
- Decreto 16/2017 de 17 de enero, de modificación del Decreto de ayudas de emergencia social.
- Criterios para la Concesión de las Ayudas Económicas de Carácter Social del Ayuntamiento de Pasaia para el año 2025.

CRITERIOS PARA LA CONCESIÓN DE LAS AYUDAS ECONÓMICAS DE CARÁCTER SOCIAL DEL AYUNTAMIENTO DE PASAIA. AÑO 2025

Estos criterios tienen por objeto la regulación de la concesión de las ayudas económicas municipales del Ayuntamiento de Pasaia para el año 2025.

I. OBJETO

Atender a situaciones de urgencia económica de las personas y/o familias que conforme a los criterios resulten beneficiarias durante el año 2025.

Pueden ser ayudas otorgadas a fondo perdido, o préstamos con el compromiso del beneficiario/a de devolver las cantidades percibidas.

Estas ayudas económicas tienen carácter subsidiario y, en su caso, complementario con recursos y prestaciones sociales de contenido económico previstas en la legislación vigente que pudieran corresponder all/a la beneficiario/a o a cualquiera de los miembros de la unidad de convivencia.

Bestereenezinak dira, eta, beraz, ezin dira betebeharren berme gisa eskaini, ezta guztiz edo partzialki laga, konpentsatu edo deskontatu ere, bidegabeki jasotako prestazioak itzultzeko izan ezik. Era berean, ezingo dira atxiki edo enbargatu, aplikatzeko den Estatuko legeria orokorrean aurreikusitako mugak izan ezik.

Son intransferibles y, por lo tanto, no puede ser ofrecidas en garantía de obligaciones, ni ser objeto de cesión total o parcial, ni de compensación o descuento, salvo para el reintegro de las prestaciones indebidamente percibidas. Tampoco podrán ser objeto de retención o embargo, salvo los límites previstos en la legislación general del Estado que resulte de aplicación.

Laguntzak honako kontzeptu hauetako baterako eman daitezke:

Las ayudas pueden otorgarse para alguno de los siguientes conceptos:

a) Ohiko etxebizitza edo bizitokia erabiltzeko eta mantentzeko beharrezko gastuak, hala nola:

a) Gastos necesarios para el disfrute y mantenimiento de la vivienda o alojamiento habitual, incluyendo:

- Alokairu-gastuak.
- Gizarte-larrialdian egon aurretik etxebizitza edo bizitokia erostean ondorioz hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuak.
- Mantentze-gastuak.
- Ohiko etxebizitzan edo bizilekuan bizi ahal izateko eta bertan oinarritzko osagaiak edukitzeko beharrezko gastuak. Zehazki, hauek:
 - Altzarietarako gastuak.
 - "Lerro zuria" izeneko etxetresna elektrikoaren gastuak.
 - Etxebizitza egokitzeko edo konpontzeko gastuak.
 - Etxebizitzan oinarritzko instalazioak jartzeko gastuak.

- Gastos de alquiler.
- Gastos derivados de intereses y de amortización de créditos contraídos con anterioridad a la situación de emergencia social como consecuencia de la adquisición de una vivienda o alojamiento.
- Gastos de mantenimiento.
- Gastos necesarios para la habitabilidad y el equipamiento básico de la vivienda o alojamiento habitual, considerándose como tales los siguientes:
 - Gastos de mobiliario.
 - Gastos de electrodomésticos de la denominada "línea blanca".
 - Gastos de adaptación o reparación de la vivienda.
 - Gastos de instalaciones básicas en la vivienda.

b) Sistema publikoek estaltzen ez dituzten oinarritzko premiei dagozkien gastuak:

b) Gastos relativos a las necesidades primarias no cubiertas por los diferentes sistemas públicos:

- Oinarritzko elikadura-gastuak
- Oinarritzko jantzi-gastuak
- Hezkuntza-gastuak
- Prestakuntza-gastuak
- Osasun-gastuak
- Gizarteratzeko eta/edo mendekotasuna gainditzeko prozesu batek eragindako gastuak.
- Etxebizitza eskuratzeko lehenengo gastuak (fidantza, agentzia-gastuak).

- Gastos de alimentación básica
- Gastos de vestuario básico
- Gastos de educación
- Gastos de formación
- Gastos sanitarios
- Gastos originados por un proceso de inclusión y/o deshabituación.
- Gastos para entrada en vivienda (gastos de fianza y agencia).

- Logela eskuratzeko lehenengo gastuak (fidantza-gastuak eta lehen hilekoaren ordainketa).

c) Aurreko a) eta b) idatz-zatietan aipatzen diren kontzeptuetako batengatik lehenagotik zorpetuta egoteagatik sortutako gastuak, do kreditu pertsonalengatik, ogasunarengatik, gizarte-segurantzarengatik eta abarrengatik zorpetuta egoteagatik sortutako gastuak.

d) Bizikidetzaren unitateko mendeko lagunen (adingabekoak, zaharrak edo ezintasuna duten lagunak) zaintzak eragiten dituen gastuak, mendekoen babesgabezia egoerak saihesteko, eta zaintzaileek gizarteratze- eta laneratze-ibilbideetan parte hartzeko aukera izateko.

e) Pasaian bizitegi-bazterketari aurre egiteko mantenu- eta bizitegi-premiei dagozkien gastuak, hau da, etxerik gabeko egoeren edo egoera horretan egoteko arrisku-egoeren inpaktua minimizatzeko gastuak, etorkizuneko aukerak hobetzera bideratuak, Arreta Pertsonalizatuko Plan baten barruan.

- Gastos para entrada en habitación (gastos de fianza y primera mensualidad).

c) Gastos de endeudamiento previo originados por alguno de los conceptos a los que se refieren los apartados a) y b) o por gastos de endeudamiento derivados por créditos personales, hacienda, seguridad social, etc.

d) Gastos generados por el cuidado y la atención de personas dependientes (menores, mayores o personas con discapacidad), para prevenir situaciones de desprotección de esas personas o para posibilitar la participación de las personas cuidadoras en procesos de inclusión social.

e) Gastos relativos a necesidades de manutención y habitacionales para el abordaje de la exclusión residencial en Pasaia, es decir, para minimizar el impacto de situaciones de sin hogarismo, o de situaciones de riesgo de estarlo, encaminadas a mejorar sus perspectivas de futuro, dentro de un Plan de Atención Personalizado.

MURRIZTEKO IRIZPIDEAK

4/2011 Dekretuaren 11.2 artikulua dio beharrezkoa dela murrizketak egitea, "dauden aurrekontu-baliabideak kontuan hartuta". Hori horrela, murrizketa modura Pasaia Udalak neurri hauek ezartzen ditu:

- Laguntza horien hartzaile izateko, ezin izango da 20.000 €-ko ondare higigarri eta higiezina gainditu bizikidetzaren unitate bakoitzeko, ohiko etxebizitza izan ezik.
- 2025. urterako, oro har, ez da laguntzarik emango aho-hortzen konponketetarako, Batzorde Teknikoak horrela balioetsitako salbuespenezko kasuetan izan ezik.
- Arau orokor gisa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen kontzeptu bakarra izapidetuko da.

Salbuespen gisa, 2 kontzeptu emango dira, Gizarte Ekintza Saileko Batzorde Teknikoak

CRITERIOS DE MINORACIÓN

El artículo 11.2 del Decreto 4/2011 establece la necesidad de realizar minoraciones "teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias existentes". Por ello, a modo de minoración, el Ayuntamiento de Pasaia establece las siguientes medidas:

- Para ser receptor de estas ayudas no se podrá superar 20.000€ de patrimonio mobiliario e inmobiliario por unidad convivencial, exceptuando la vivienda habitual.
- Para el año 2025 como norma general, no se concederán ayudas para arreglos bucodentales, salvo casos excepcionales valorados así por la Comisión Técnica.
- Como norma general, se tramitará un solo concepto de Ayudas de Emergencia Social.

Excepcionalmente se concederán 2 conceptos, previa valoración de los casos por la

kasuak baloratu ondoren, honako kasu hauetan:

a) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta etetea.

Kasu horretan, dirulaguntzak emateko bi kontzeptu osagarriak honako hauek izan daitezke:

- Alokairua eta mantenua
- Mantenua eta premia pertsonalak
- Alokairua eta premia pertsonalak
- Hipoteka eta mantenua
- Hipoteka eta premia pertsonalak

Premia larriko kasuetan, Batzorde Teknikoak hiru kontzepturaino handitu ahal izango du kontzeptu kopurua, aurrekoei zorraren kontzeptua gehituz, Udalaren izaera sozialeko laguntza ekonomikoen bitartez.

b) Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eskaerak, edo ebazteke dauden beste eskubidezko prestazio batzuk (BGDS, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzako prestazio ekonomikoa).

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo beste prestazio batzuk ebaztean izandako atzerapenak bazterkeria-arrisku handia sortzen duen salbuespenezko kasuetan, Batzorde Teknikoak gizarte-larrialdietarako laguntzak bi kontzepturengatik ematea baloratu ahal izango du:

- Alokairua eta mantenua.
- Mantenua eta premia pertsonalak
- Alokairua eta premia pertsonalak
- Hipoteka eta mantenua
- Hipoteka eta premia pertsonalak.

Premia larriko kasuetan, Batzorde Teknikoak hiru kontzepturaino handitu ahal izango du kontzeptu kopurua, aurrekoei zorraren kontzeptua gehituz, Udalaren izaera sozialeko laguntza ekonomikoen bitartez.

Salbuespen-egoera hori mantendu egingo da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eskaera –edo beste prestazio batzuk– ebatzi arte. Ebatzi ondoren, jarraitzea edo etetea baloratuko da.

Comisión técnica del Departamento de Acción Social, en los siguientes supuestos:

a) Suspensiones de la Renta de Garantía de Ingresos.

Los dos conceptos complementarios de concesión en este supuesto podrán ser:

- Alquiler y mantenimiento
- Mantenimiento y necesidades personales
- Alquiler y necesidades personales
- Hipoteca y mantenimiento
- Hipoteca y necesidades personales

En casos de extrema urgencia, la Comisión técnica podrá ampliar el número de conceptos a tres, sumando a los anteriores el concepto de deuda, a través de las ayudas económicas de carácter social del Ayuntamiento.

b) Solicitudes de Renta de Garantía de Ingresos, u otras prestaciones de derecho pendientes de resolución (IMV, Prestación económica de vivienda de Gobierno Vasco).

En aquellos casos excepcionales, donde la demora en la resolución de la Renta de Garantía de Ingresos u otras prestaciones, genere una situación de alto riesgo de exclusión, de manera excepcional, la Comisión técnica podrá valorar la concesión de Ayudas de Emergencia Social por 2 conceptos:

- Alquiler y mantenimiento
- Mantenimiento y necesidades personales
- Alquiler y necesidades personales
- Hipoteca y mantenimiento
- Hipoteca y necesidades personales.

En casos de extrema urgencia, la Comisión técnica podrá ampliar el número de conceptos a tres sumando a los anteriores el concepto de deuda, a través de las ayudas económicas de carácter social del Ayuntamiento.

Esta situación de excepcionalidad, se mantendrá hasta que la solicitud de Renta de Garantía de Ingresos -u otras prestaciones- sea resuelta. Una vez resuelta se valorará su continuidad o suspensión.

c) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo beste prestazio batzuk azkentzea.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo beste prestazio batzuk azkentzea ebazten den kasuetan, Batzorde Teknikoak Gizarte Larrialdietarako Laguntzak ematea ere baloratu ahal izango du, bi kontzeptu desberdinengatik:

- Alokairua eta mantenua
- Mantenua eta premia pertsonalak
- Alokairua eta premia pertsonalak
- Hipoteka eta mantenua
- Hipoteka eta premia pertsonalak

Premia larriko kasuetan, Batzorde Teknikoak hiru kontzepturaino handitu ahal izango du kontzeptu kopurua, aurrekoei zorraren kontzeptua gehituz, Udalaren izaera sozialeko laguntza ekonomikoen bitartez.

d) Udalarekin adostutako gizarteratze-prozesuetan dauden pertsonak.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak bi kontzepturengatik eskatu ahal izango dira, eta eutsi egingo zaie, betiere prozesuaren bilakaera positiboa bada.

II. ONURADUNAK

Onuradunak zehaztea. Betekizunak

- a) Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea.
- b) Pasaia udalerrian erroldatuta egotea eta/edo bertan benetan bizitzea gutxienez laguntza eskatu baino 6 hilabete lehenagotik. Salbuespen izango dira ardurapean adingabeak dituzten kasuak eta/edo esku-hartzearen xedea kideren bat (adingabeak, adinekoak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak eta/edo zaurgarritasun bereziko pertsonak) babestea duten kasuak, horietan erroldako antzinatasunaren baldintza ez baita eskatuko.

c) Extinciones a la Renta de Garantía de Ingresos u otras prestaciones.

En los casos en se resuelva la extinción de la Renta de Garantía de Ingresos u otras prestaciones, la Comisión técnica también podrá valorar la concesión de Ayudas de Emergencia Social por dos conceptos diferentes:

- Alquiler y mantenimiento
- Mantenimiento y necesidades personales
- Alquiler y necesidades personales
- Hipoteca y mantenimiento
- Hipoteca y necesidades personales

En casos de extrema urgencia, la Comisión técnica podrá ampliar el número de conceptos a tres, sumando a los anteriores el concepto de deuda, a través de las ayudas económicas de carácter social del Ayuntamiento.

d) Personas en procesos de inclusión social acordados con el ayuntamiento

Se podrán solicitar Ayudas de Emergencia Social por dos conceptos diferentes, que se mantendrán siempre que la evolución del proceso sea positiva.

II. DE LAS PERSONAS BENEFICIARIAS

Determinación de las personas beneficiarias. Requisitos

- a) Ser mayor de edad o menor emancipado.
- b) Estar empadronado/a y/o tener residencia efectiva en el municipio de Pasaia al menos con 6 meses de antelación a la solicitud de la ayuda; salvo en los casos en los que haya menores a cargo y/o en los casos cuyo objeto de la intervención sea la protección de alguno de sus miembros (menores, personas mayores, mujeres víctimas de violencia de genero y/o personas de especial vulnerabilidad), donde el requisito de antigüedad de padrón no será exigible.

- c) Bizikidetzaren unitate bateko kide izatea laguntza eskatu baino urtebete lehenago gutxienez, gizarte-langileak aldeko txostena egin ezean.

Bizikidetzaren unitate hartuko dira Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren arloan indarrean dagoen araudian jasotako kasuetan dauden pertsonak (Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 22ko 14/2022 Legea).

Ezarritako baldintzak betetzen dituzten bizikidetzaren unitate bereko hainbat kide kontzeptu bererako laguntza bat eskatzen badute, horietako bati bakarrik emango zaio.

- d) Gizarteratzeko beharrezkoak diren gastuei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez izatea. Laguntzaren onuradunak baliabide nahikorik ez duela ulertuko da, urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuan araututako gizarte-larrialdietarako laguntzak eskuratzeko baliabide ekonomikorik ez izatearen baldintza betetzen duenean.

- e) Gizarte-langile erreferenteak hala erabakitzen duenean, nahitaezkoa izango da esku-hartze sozialeko plan integral batean parte hartzea, non prestazioa izapidetzea ezarritako gizarteratze-prozesuko beste jardura bat izango den. Horretarako, gizarte laguntzaileak aipatutako egoera babestuko du gizarte txostenaren bitartez.

- f) Bizikidetzaren unitateko kide guztiek ezin izango dute Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan jasotako debekuetako batean ere egon. Betekizun horietatik salbuesita geratzen da 13.2 e) apartatua, dirulaguntzaren izaera sozialak eragindako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzei buruzkoa. Lege beraren 34.5 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako izango da salbuespena.

- c) Formar parte de una unidad de convivencia como mínimo con un año de antelación a la fecha de solicitud de la ayuda, salvo informe favorable de la trabajadora social.

Tendrán la consideración de unidad de convivencia, las personas que se encuentren en los supuestos recogidos por la normativa vigente en materia de Renta de Garantía de Ingresos (Ley 14/2022 de 22 de Diciembre para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión social).

En el caso de que varios miembros de una misma unidad convivencial, cumpliendo los requisitos establecidos soliciten una ayuda para un mismo concepto únicamente se le concederá a uno de ellos.

- d) No disponer de medios económicos suficientes para afrontar los gastos necesarios para lograr su inclusión social. Se entiende que el beneficiario de la ayuda carece de recursos suficientes cuando cumple el requisito de falta de recursos económicos para acceder a las Ayudas de Emergencia Social regulados en el decreto 4/2011, de 18 de enero.

- e) Cuando así se determine por la Trabajadora Social referente de caso será requisito el participar en un plan de intervención social integral, en el que la tramitación de la prestación sea una actividad más en el proceso de inserción social establecido. A tales efectos, la trabajadora social avalará dicha situación mediante informe social.

- f) La totalidad de los miembros de la unidad de convivencia no deberán estar incursos en ninguna de las prohibiciones recogidas en el artículo 13 apartados 2 y 3 de la Ley General de Subvenciones. Se exceptúa de estos requisitos el apartado 13.2 e) referido al cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social debido a la naturaleza social de la subvención. Esta exoneración se extiende a los efectos de lo establecido en el artículo 34.5 de la misma Ley.



2025WTGB0001
**GIZARTE IZAERAKO DIRULAGUNTZAK
ESKURATZEKO IRIZPIDEAK. 2025. URTEA**
2025WTGB0001
**CRITERIOS PARA LA CONCESIÓN DE LAS AYUDAS
ECONÓMICAS DE CARÁCTER SOCIAL. AÑO 2025**

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia
GIZARTE EKINTZA
Tel. 943 004320
gizartekintza@pasaia.net

Salbuespenak:

Batzorde Teknikoak honako salbuespen hauek baloratu ahal izango ditu:

1. Diru-sarreraren bat izanik, embargoengatiko zorrei (gizarte-segurantza, ogasuna, embargo judizialak) eta mantenu-pentsio edo konpentsazio-pentsio gisa ordaindu beharreko gastuei aurre egin behar dieten bizikidetzak-unitateak. Nolanahi ere, zor edo gastu horiei aurre egiteak esan nahi du bizikidetzak-unitate horrek eguneroko bizitzako oinarritzko premiei aurre egiteko duen hileko zenbatekoa txikiagoa dela ezaugarri berak dituen bizikidetzak-unitate bati diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa legokiokeen zenbatekoaren % 50 baino.

2. Esku-hartzearen xedea kideren bat babestea duten bizikidetzak-unitateak (adingabeak, adinekoak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak...).

Dokumentu honetan jasotzen ez den salbuespenezko edozein egoera erreferentziazko gizarte-langileak arrazoitu beharko du, gizarte-txostenaren bidez, eta Laguntza Ekonomikoen Batzorde Teknikoak baloratu beharko du.

Onuradunen betebeharrak

Hauek dira laguntza ekonomikoen onuradunen betebeharrak:

a) Jasotako prestazioak eman diren helbururako erabiltzea.

b) Erreferentziazko gizarte-langileari jakinaraztea bere egoeran gertatzen den edozein aldaketa, prestazioak jasotzeko aukera eman dezaketen baldintzak betetzeari dagokionez, eta, zehazkiago, honako hauek:

Excepciones:

La Comisión Técnica podrá valorar las siguientes excepciones:

1. Unidades de convivencia que, teniendo algún ingreso, tengan que hacer frente a unas deudas por embargos (seguridad social, hacienda, embargos judiciales) y gastos que deban pagarse en concepto de pensiones alimenticias o compensatorias. En todo caso, el enfrentar a esas deudas o gastos implica que la cuantía mensual de la que dispone dicha unidad de convivencia para hacer frente a las necesidades básicas de la vida diaria, sea inferior al 50% de la cantidad que le correspondería percibir de renta de garantía de ingresos a una unidad de convivencia de las mismas características.

2. Unidades convivenciales en las cuales el objeto de la intervención sea la protección de alguno de sus miembros (menores; personas mayores; mujeres víctimas de violencia de género...).

Cualquier situación excepcional no contemplada en el presente documento, deberá ser motivada por la trabajadora social de referencia mediante informe social y valorada por la Comisión Técnica de las Ayudas Económicas.

Obligaciones de las personas beneficiarias

Son obligaciones de las personas beneficiarias de las Ayudas Económicas:

a) Aplicar las prestaciones recibidas a la finalidad para la que se hubiera otorgado.

b) Comunicar a su Trabajadora Social de referencia cualquier cambio que se produzca en su situación con relación al cumplimiento de los requisitos que pudieran dar lugar al acceso de las prestaciones, y, más específicamente, los siguientes:

- Aldaketak familia-osaeran.
- Prestazioa kalkulatzeko oinarritzat hartu diren baliabide ekonomikoak aldatzea.
- Ohiko bizilekuaren aldaketak.
- Cambios en la composición familiar.
- Modificación de los recursos económicos que hayan servido de base para el cálculo de la prestación.
- Cambios relativos al domicilio de residencia habitual.

- c) Behar ez bezala edo behar baino zenbateko handiagoan jasotako prestazioen zenbatekoa itzultzea.
- c) Reintegrar el importe de las prestaciones indebidamente percibidas o en cuantía indebida.
- d) Gizarte Zerbitzuen aurrean agertzea eta haiei laguntzea, hala eskatzen zaienean.
- d) Comparecer ante los Servicios Sociales y colaborar con los mismos cuando sean requeridos/as.
- e) Hobetzeko edo gizarteratzeko esku-hartze integraleko plan bat adostea gizarte-langilearekin.
- e) Acordar con la Trabajadora Social un plan de intervención integral de mejora y/o inserción.
- f) Esku hartzeko planean hartutako konpromisoak betetzea.
- f) Cumplir con los compromisos adquiridos en el plan de intervención.

III. GIZARTE-IZAERAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK EMATEKO PROZEDURA

III. PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN DE LAS AYUDAS ECONÓMICAS DE CARÁCTER SOCIAL

Gizarte-izarako Laguntza Ekonomikoetarako Batzorde Teknikoa

Comisión Técnica para las Ayudas económicas de carácter social

Batzordea honako hauek osatuko dute:

La comisión estará formada por:

- Lehendakaria: Gizarte Ekintza Saileko arduraduna.
- Idazkaritza: gizarte-bazterketako programaren ardura duen gizarte-langilea, edo hark eskuordetutako gizarte-langilea.
- I. bokala: haurren eta nerabeen programaren ardura duen gizarte-langilea, edo hark eskuordetutako gizarte-langilea.
- II. bokala: hirugarren adinekoen programaren ardura duen gizarte-langilea, edo hark eskuordetutako gizarte-langilea.
- La Presidenta: la Responsable del Departamento de Acción Social.
- La secretaria: la trabajadora social responsable del programa de exclusión social, o trabajadora social en quien delegue.
- Vocal I: la Trabajadora social responsable del programa de infancia y adolescencia, o trabajadora social en quien delegue.
- Vocal II: la trabajadora social responsable del programa de tercera edad o trabajadora social en quien delegue.

Batzordeburua eta idazkaria batzordeko gainerako kideek ordezkaturiko dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 legean jasotako arauen arabera.

La presidenta y la secretaria serán sustituidas por el resto de miembros de la comisión conforme a las normas contempladas en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Hauek dira batzorde horren eginkizunak:

Son funciones de esta comisión las siguientes:

- Gizarte-langileek aurkeztutako proposamenak aztertzea eta baloratzea.
- Laguntzak emateko edo ukatzeko proposamena Gizarte Ekintza Saileko Arduradunari aurkeztea, behar bezala arrazoituta, hark ebazpen-proposamena egin dezan.
- Analizar y valorar las propuestas presentadas por las trabajadoras sociales.
- Elevar, previa motivación, la propuesta de concesión o de denegación de las ayudas a la Responsable del Departamento de Acción Social para que emita la correspondiente propuesta de resolución.

Eskaera eta dokumentazioa

Eskaera aurrez aurre erregistratuko da Pasaia Herritarren Arreta Zerbitzuetako edozeinetan, 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera. Modu telematikoa ere erregistratu ahal izango da, udalak eskaintako bitarteko telematikoen bidez. Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira, onuraduna dela egiaztatzeko:

- a) Eskatzailearen eta, hala badagokio, bizikidetzaren unitateko gainerako kideen NAN, AIZ edo pasaporteak.
- b) Familia-liburua, jaiotza-akta eta/edo, hala badagokio, zaintza eta jagoletza edo tutoretza egiaztatzen duten dokumentuak.
- c) Banantze-demanda, behin-behineko neurrien epaitegiaren ziurtagiria edo dibortzio-epaia.
- d) Gurasoen eta seme-alaben arteko neurriak, dibortzio-epaia edo banantze-epaia arautzen dituen hitzarmena.
- e) Lan-bizitzaren ziurtagiria, GSINek emana.
- f) Familia-unitateko kide guztien diru-sarreraren ziurtagiria eta/edo diru-sarreraren zinpeko aitortpena.
- g) Azken 6 hilabeteetako banku-mugimenduak eta kontu korrontearen zenbakia.
- h) Eskatzailearen eta, hala badagokio, familia-unitateko kide guztien ondasun higigarrien eta higiezinen ziurtagiriak. Eskatzaileak Pasaia Udalarai baimena ematen badio zuzenean Gipuzkoako Foru Aldunditik eskatzeko, ez da beharrezkoa izango ziurtagiri horiek aurkeztea.
- i) Lanbideren DARDE txartela.
- j) Eskatutako laguntzaren xede diren gastuen fakturak edo aurrekontuak.

Solicitud y documentación

La solicitud se registrará de forma presencial en cualquiera de los Servicios de Atención Ciudadana de Pasaia conforme a lo previsto en la Ley 39/2015. También podrá registrarse de forma telemática a través de los medios telemáticos ofertados desde el Ayuntamiento. Deberá de acompañarse a la solicitud la siguiente documentación a efectos de acreditar la condición de beneficiario/a:

- a) DNI, NIE o Pasaporte de la persona solicitante y, en su caso, del resto de los miembros de la unidad convivencial.
- b) Libro de familia, acta de nacimiento y/o en su caso, los documentos que acrediten la guarda y custodia o tutela.
- c) Demanda de separación, certificado del Juzgado de las medidas provisionales o sentencia de divorcio.
- d) Convenio regulador de las medidas paterno-filiales, de la sentencia de divorcio o la de separación.
- e) Certificado de vida laboral expedido por el INSS
- f) Certificado de ingresos de todos los miembros de la unidad familiar y/o declaración jurada de ingresos.
- g) Movimientos bancarios de los últimos 6 meses y número de cuenta corriente.
- h) Certificados de bienes muebles e inmuebles de la persona solicitante y en su caso de todos los miembros de la unidad familiar. Si la persona solicitante autoriza al Ayuntamiento de Pasaia para que recabe directamente de la Diputación Foral de Gipuzkoa no será necesaria la aportación de estos certificados.
- i) Tarjeta DARDE de Lanbide.
- j) Facturas o presupuestos de los gastos para los que solicita ayuda.

 <p>PASAIKO UDALA www.pasaia.eus</p>	<p>2025WTGB0001 GIZARTE IZAERAKO DIRULAGUNTZAK ESKURATZEKO IRIZPIDEAK. 2025. URTEA 2025WTGB0001 CRITERIOS PARA LA CONCESIÓN DE LAS AYUDAS ECONÓMICAS DE CARÁCTER SOCIAL. AÑO 2025</p>	<p>IFK/CIF P2006900A Tel. 943 344034 Donibane kalea, 19 20110 Pasaia</p> <p>GIZARTE EKINTZA Tel. 943 004320 gizartekintza@pasaia.net</p>
---	--	--

k) Premia-egoera bermatzen duen edo gizarte-langileak egoera hori egiaztatzeko eskatzen duen beste edozein dokumentu.

k) Cualquier otro documento que avale la situación de necesidad y/o que sea requerido por la trabajadora social para constatar la misma.

Era berean, eta administrazio-espeditentea osatze aldera, eskatzaileak entregatutako dokumentazioa Pasaia Udalak osatuko du, honako dokumentu hauek aurkeztuz:

